

# Urriak 20k manifestaldiaren ondoren

## HERRI - JARRIERA ETA EUSKERA

Estradizioen kontrako manifestaldia burutzear zegoen. Agur beroak estatuko eta Europako beste Herrietatik etorritajiei; hitzaldi luzea, manifestaldiaren helburuak eta arrakasta agertzeko, bai eta Pareseko eta Madrilgo gobernuen politika zapaltzailea saltzeko... Dena erdaraz! Gaztelaniaz. Horrela amaitu behar zuela ematen zuen edintza handi harek.

Baina ba zegoen han jenderik urduri egon ezinik. Halako batean, Euskal Herriaren euskaraz! Euskal Herriaren euskaraz! oihuak. Erdal "iruzkin" bat egin zezan. Jende askok eraskintzat, adabagitat, hartu zuen euskal hizlariaren "iruzkina"

Ni ez nator honera inor salatzeraz, kezka handi bat agertzera baizik. Salakuntza Bilboko hareatan bertan egin zela uste dut; eta manifestaldiaren antolatzaleek ulertu zuten seguruenik. Harritu nauena, ordea, zera da: inork aipatu ez izana azkenaldiko gorabehera hura.

### Euskararen alde jarki

Herri-jarkiera bakezkoa, armazkoa bezala, gizatalde betek jasaten duen egoera anormalean sortzen eta eratzen da: hau da, kanpotik datozkion erasoei erantzuna izan ohi da; berziki erakunde ofizialek eta boteredunengandik datozkion erasoei erantzuna.

Normalkuntza du, hain zuzen, orain euskarak bere arazoa; eta horren berreskuratzea du Herri honek bere helburua, benetan gaurko bere hizkuntza nazionala izatera eraman arte. Normalkuntzako eta berreskurapeneko helmuga horrek herri-jarkieraren bidea hartu besterik ez dauka, euskarak gaur bertan jasaten dituen eraso legal, instituzional eta politi-

koetatik defenditzeko. Euskararen defentsa da, hasteko, horren normalkuntzarako eta berreskurapenerako bide. L. -J. Calvet-ek dioen "glotofagia" aurrera doa Euskal Herriaren: hau da, erdarak (gaztelania eta frentsesa) "irensten" ari dira euskara; ez, ordea, patu historikoren baten determinismo hutsez, eta bai historian zehar eta oraindik ere alde askotatik euskarari normaltzeko baliabideak ukatzen zaizkiolako.

Aipaturiko Calvet-en hitz batzu ekarriko ditut: "La disparition d'une langue (la glottophagie réussie) ou son contraire dépendent de nombreux facteurs non linguistiques, en particulier des possibilités de résistance du peuple qui parle cette langue" (Linguistique et Colonialisme, 81. or; zilegi bekit frantsesez uztea hitz horiek, gure artean gaztelaniaz ere uzteko ohitura dugunez). Jakina, euskera ezingo zaie jarki gaztelaniari eta frantsesari, euskaldunok jarkitzen ez bagatzaizkie euskarari erasotzen diotenei.

Herriak berak du protagonismoa euskararen defentsan, normalduntzan eta berreskurapenean; horregatik, talde, elkarte eta erakunde herritarren eskuetan dago beren artean koordinatzea, eta euskararen aldeko jarkiera edo erresistentzi mugimendu zabal eratzea. Ba dirudi, gorpuzten ari dela horrelako mugimendua azken hilabeteotan, kultur sail eta gizarte-sektore zabalak eskutatik. Bere izena ere ba du: EKB! Baina izenak ez du axola.

### Euskaraz jarki

Estradizioen aurkako gutunaren eta manifestaldiaren inguruan bakezko jarkiera herritarren mugimendua nabarmendu da. Nekez, baina gero eta indartzenago eta eratzengo doala argi dagoe-

la esan daiteke.

Gizonaren, gizataldeen eta Herriaren eskubide urratuak dira herri-jarkieraren abiapuntua eta zioa: herri boteregabeak botere funen irainen kontra hartzen duen jokabide tinkoa besterik ez bait da bakezko jarkiera herritarra. Baina eskubide urratu ezberdinak bereiztezinak dira, nahiz eta aldi bakoitzean eskubide urratu jakin batzu nabarmendu, jarkieraren gai gisa.

Bere hizkuntzaren eta kulturaren eskubidea du nagusienetarikoa Herriak. Euskararen hiltzoriko egoera larri honetan, berriz, herri-jarkierako mugimendua ezin du inola ere eta inoiz ere alde batera utzi horren aldeko defentsa. Areago, euskal jarkiera herritarreko mugimendu orokorraren eta horren ekintza bakoitzaren muintza egon behar du, nabarmenki, euskararen normalkuntzaren eta berreskurapenaren errebindikazioak. Horregatik askori kontradiktorioa iruditu zitzaion urriaren 20ko manifestaldiaren amaian utzi zitzaion bazterreko lekua. Euskaraz jarki behar zaie aurrenik eta nagusienik giza, gizarte eta herri- eskubideei egiten zaizkien erasoei.

Bestalde, ez dut uste euskararen defentsarako eta bestelako eskubideen defentsarako jarkiera-mugimenduak bereizirik izan behar dutenik, nahiz eta sarri-tan eskubide jakinen defentsarako erakunde espezifikokoak sortu.

PAULO AGIRREBALTZATEGI